

BIKTIMA OTE DA? Adierazleak

Adierazle hauei begiratuta, familiek pentsatu ahal izango dute euren semea edo alaba eskola jazarpenaren biktima den. Helburua ez da egoeraren diagnostikoa egitea, hipotesi bat egitea baizik.

Ikastetxera / institutura joatean.

- Ez du ikastetxera joan nahi. Klasera joan behar duenean antsietatea areagotzen zaio. Gerta daiteke klasera joan behar duenean gaixotasun psikosomatikoa izatea (gaixo egotea). Ez zaio horrelakorik gertatzen, ordea, oportetan dagoenean edo asteburuetan.
- Ikastetxeari beldur dio. Saihesteko estrategiak (aitzakiak).
- Logikarik gabeko ibilbideak hartzen ditu ikastetxera joateko.
- Denboraz justu joaten da ikastetxera (saiatzen da inorekin ez topo egiten).

Ikastetxetik/institututik itzultzean.

- Maiz arropa zimurtuarekin edo arrailduarekin iristen da etxera. Material hondatua. Eskolarako lanabesak falta zaizkio. Gauza galduak. Dirua falta zaio.
- Kolpeak, ubeldurak edo zauriak izan ditu.
- Maiz kexu izaten da esaten dizkioten irainengatik, trufengatik, baita ematen dizkioten kolpeengatik ere. Ez zaio gustatzen besteek berari galderak egitea.

Egoera orokorretan

- Ez du etxetik atera nahi.
- Ez du lagunik etxera eramaten. Ez da beste haur batzuen etxeetara joaten. Ez da inorekin geratzen ateratzeko.
- Ez du lagun on bakar bat ere.
- Ikaskideekin ez du harremanik.
- Saiatzen da ikastetxeko jendearekin ez topo egiten.
- Eskolarekin zerikusia duen oro mespretxatzen du.
- Ez da zorientzua, triste eta depresioak jota dago.
- Makina bat ordu ematen ditu bakardadean.
- Ohi den baino diru gehiago behar du.
- Eskola errendimenduaren beherakada.
- Ohi den baino umore aldaketa gehiago.
- Gerta daiteke bakarka egon nahi izatea, errealitatetik ihesi bezala.
- Lagunekin egin ohi zituen jarduera batzuk alde batera utzi ditu, azalpenik eman gabe.